



LAGen AURRERAPENA DELA ETA AURKEZTUTAKO IDATZIARI ERANTZUNA CONTESTACIÓN AL ESCRITO PRESENTADO AL AVANCE DE LA REVISIÓN DE LAS DOT

Ekarpen zenbakia:

03

Aportación nº:

Nork aurkeztu du:

UEMA

Presentada por:

Aurkezpen data:

08/05/2017

Fecha de presentación:

Egindako ohar eta iradokizunen eduki laburbildua eta balorazioa.

Aurkeztutako idatziak bederatzi ataletan sailkatzen ditu ohar eta proposamenak; balorazio honetan ordena hori jarraitzen delarik.

Contenido resumido y valoración de las observaciones y propuestas formuladas.

El escrito presentado clasifica las observaciones y propuestas divididas en nueve apartados; orden que se mantiene en esta valoración.

1. Arnasguneak (10.4 Euskara / 1. Gaiaren Egoera).

Arnasgune terminoaren definizioa gehiago garatu beharra dagoela dio eta funtsezkoa dela honako eduki hauek ere izatea:

- **Soziolinguistikoki.** Aurrerapen dokumentuak 4. gune soziolinguistikoko udalerriak soilik dituela arnasgunetzat (euskararen ezagutza-indizea % 80tik goragokoa) eta UEMAK udalerri euskalduntzat dituela indizea % 70etik gora dutenak.
- **Geografikoki** ere gehiago garatu beharra dagoela kontzeptua, bai eskala txikiago batetik (euskararen auzo-arnasguneak aipatzen ditu) bai ikuspegi handiago batetik (eskualde osoak hartu behar direla kontuan arnasguneetako dinamikak lantzerakoan).
- Euskararen arnasguneak espazio **funtzionalak** ere izan daitezkeela; bai hiri-mailakoak (Aurrerapen dokumentuak jasotakoa) eta bai lurralde-mailakoak ere (Andoingo Martin Ugalde Kultur Parkea adibidez). Hortaz, arlo sozioekonomikoarekin lotura handia edukitzeaz gain, hirigintzarekin eta lurralde-antolamenduarekin harreman estua duen kontzeptu funtzional hau

1. Los “Arnasgune” (10.4 Euskara / 1. Estado de la cuestión).

Expresa que debe desarrollarse más la definición del término “arnasgune” y que es básico que tenga también estos contenidos:

- **Sociolingüísticamente.** Que el documento de Avance considera *arnasgune* únicamente a los municipios de la 4ª zona sociolingüística (índice de conocimiento del euskera superior al 80%) y UEMA considera municipios euskaldunes a los que tienen índice superior al 70%.
- Que también **geográficamente** ha de desarrollarse más el concepto, tanto desde una escala menor (menciona los barrios-*arnasgune* del euskera) como desde una perspectiva mayor (que al trabajar las dinámicas de los arnasgune deben tenerse en cuenta las comarcas completas).
- Que los arnasgune del euskera pueden ser también espacios **funcionales**; tanto de nivel urbano (lo recogido en el documento de Avance) como de nivel territorial (el Parque Cultural Martín Ugalde de Andoain por ejemplo). Que por lo tanto, para desarrollar en las nuevas DOT los espacios de vida del euskera en su conjunto debería desarrollarse más este concepto funcional que está



gehiago garatu beharko litzatekeela, LAG berrietan euskararen bizi-espazioak osotasunez garatuko badira.

Hala ere, argi utzi beharko litzatekeela ez dela sustatuko hizkuntza-eskubideen zonifikaziorik, inondik inora, **eskubideak ez baitira zonifikatzen**. LAGak EAEko herritar guztien hizkuntza-eskubideak lurralde-antolamenduaren eta hirigintzaren alorretik ere babesteko eta suspertzeko tresna izan beharko litzatekeela.

Oharra ulertuta, ez dagokio lurralde-antolamendurako dokumentu bati “arnasguneak” kontzeptuaren osagai guztiak garatzea.

2. Udalerrri euskaldunak.

Hirugarren gune soziolinguistikoko udalerrriak kontuan hartzeko lurguneak direla, arnasmune bilakatzeko **potentzial** handia dutelako (hori aurreikusiz eratu omen zen UEMA 1991n).

Horregatik, udalerrri euskaldunak zaintzea, indartzea eta ugaritzea ere kontuan hartu beharko litzatekeela LAGak berritzeko Aurrerapen dokumentuak, hirugarren helburuan eta bigarren gidalerroan jaso, arnasmuneen aipamenarekin batera.

Horri dagokionez, hasierako onespeneko dokumentuan emandako edukitik harago ez dela jo behar ulertzen da.

3. Prebentzio linguistikoa (10.4 Euskara / 2. Helburuak; 3. Lurralde-gidalerroak).

Kezka iturri direla arnasmuneetako hizkuntza-dinamika hauskorak dislokatu ditzaketen hiri-garapen eta azpiegiturak.

Batetik, 2/2016 Legearen 7.7 artikulua lurralde-antolamenduko eta hirigintzako plan eta proiektuen eragin linguistikoa ebaluatzeko derrigortasuna ezarri diela udalei, eta baita ondoriozko kalte soziolinguistikoak txikitzeko neurri zuzentzaileen ezarpena eskatu ere.

Bestetik, hirigintza garapenaren eragin linguistikoa kaltegarriak **prebentzio**-neurrien edo neurri zuzentzaileen bidez mugatzea proposatu zutela Oinarrizko dokumentuari egindako ekarpenetan.

estrechamente relacionado, además de con el campo socioeconómico, con el urbanismo y la ordenación territorial.

Que de todos modos debería quedar claro que no se promoverá una zonificación de los derechos lingüísticos, de ningún modo, porque **los derechos no se zonifican**. Las DOT deberían ser una herramienta para, desde el campo de la ordenación territorial y el urbanismo, proteger y recuperar los derechos lingüísticos de todos los habitantes de la CAPV.

Entendiendo la apreciación, no corresponde a un documento de ordenación territorial desarrollar todos los componentes del concepto “arnasguneak”.

2. Municipios euskaldunes.

Que los municipios de la 3ª zona sociolingüística son también lugares a considerar, porque tienen gran **potencial** de convertirse en *arnasmune* (que UEMA se formó con dicha previsión en 1991).

Que por ello, el documento de Avance de la revisión de las DOT debería tener en cuenta preservar, reforzar y también incrementar los municipios euskaldunes, incorporándolos en el tercer objetivo y segunda directriz, junto a la mención de los arnasmune.

A este respecto se estima que no debe de sobrepasarse el contenido dado en el documento de aprobación inicial.

3. Prevención lingüística (10.4 Euskara / 2. Objetivos; 3. Directrices territoriales)

Que son fuente de preocupación los desarrollos urbanos y las infraestructuras que pueden dislocar las frágiles dinámicas lingüísticas de los arnasmune.

Que por un lado el artículo 7.7 de la Ley 2/2016 establece a los municipios la obligación de evaluar el impacto lingüístico de los planes y proyectos de ordenación territorial y de urbanismo, y que les exige también establecer las medidas correctoras para la minimización de los daños sociolingüísticos resultantes.

Por otro lado que en las aportaciones realizadas al Documento de Base propusieron limitar mediante medidas de **prevención** o medidas correctoras las afecciones lingüísticas perjudiciales del desarrollo urbanístico.

Baina ez direla behar besteko zehaztasunez jaso 2/2016 Legeak ezarritako irizpideak eta aipatutako ekarpenetako eskaria:

- Honela jaso dela: “2. *Arnasguneak babestea, harremanetarako guneak ahalbidetzea, sare presentzialak indartzea eta eskusibotasuneko eta lurralde-konpartimentazioko guneak saihestea.*” (2. Gidalerroa).
- Zehaztu beharko litzatekeela; “III. Lurralde-gidalerroak” atalean ez bada, gutxienez “I. Gaiaren egoera” atalean, 2/2016 Legeak zehaztutakoari jarraiki, **eragin linguistikoren ebaluazioak** direla arnasguneak eta udalerrak, oro har, beren egoera soziolinguistikoan eragin kaltegarria izan dezaketen lurralde antolaketako eta hirigintzako proiektuetatik babesteko tresna.

UEMAk eta Gipuzkoako Foru Aldundiak eragin linguistikoa ebaluatzeko tresna bat garatu dutela dio (ELE).

LAG berriek ELEren aplikazio sistematikoa ezarri beharko luketela, bai eta -aurreikusitako kaltearen arabera- neurri zuzentzaileak proposatzeko eta gauzatzeko lurralde-orientabideak ezarri ere.

Oharra ulertuta, lurralde-antolamenduak ez du bere eremua gainditu behar hizkuntzarekin lotutako eremuetan sartzeko.

4. Garapen orekatua (10.4 Euskara / 3. Lurralde-gidalerroak).

Euskal hiztunentzako aldaketa soziolinguistiko kaltegarriak gabeko arnasguneen **garapen orekatu eta endogenoa** (termino hau lantzen duen estudio batera bidaltzen gaitu) izan beharko litzatekeela azken helburua.

Horregatik, 2. gidalerroan gehitu beharko zela, arnasguneen **garapen orekatu eta endogenoa** ahalbidetzea.

Kezkarekin bat, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen berrikuspenari hasierako onespina emateko dokumentuak Lurralde Orekatu bat lortzea jasotzen du bigarren kapituluaren garatzen diren Lurralde Ereduaren Oinarri ezberdinen artean.

Pero que no han sido recogidos con la concreción necesaria los criterios establecidos por la Ley 2/2016 y lo solicitado en dichas aportaciones:

- Que ha sido recogido así: “2. *Preservar los arnasguneak, así como propiciar espacios de relación y fortalecimiento de redes presenciales y evitar espacios de exclusividad y compartimentación territorial.*” (2ª Directriz)
- Que debería concretarse; si no fuera en el apartado “III. Directrices Territoriales”, al menos en el apartado “I. Estado de la Cuestión”, que, en base a lo especificado en la Ley 2/2016, son las **evaluaciones del impacto lingüístico** la herramienta para proteger los arnasgune y municipios, en general, de los proyectos de ordenación territorial y de urbanismo que pueden tener efectos perjudiciales sobre su situación sociolingüística.

Expone que UEMA y la Diputación Foral de Gipuzkoa han desarrollado una herramienta para evaluar la afección lingüística (ELE).

Que las nuevas DOT deberían establecer la aplicación sistemática del ELE, así como –en base al perjuicio previsto– establecer orientaciones territoriales para proponer y llevar a cabo medidas correctoras.

Entendiendo las apreciaciones, la ordenación del territorio no debe de sobrepasar su campo para entrar en campos lingüísticos.

4. Desarrollo equilibrado (10.4 Euskera / 3. Directrices Territoriales).

Que el objetivo último debería ser un desarrollo **equilibrado y endógeno** (remite a un estudio que trabaja este término) de los arnasgune, sin cambios sociolingüísticos perjudiciales para los hablantes del euskera.

Por ello, debería completarse la 2ª directriz, propiciar el **desarrollo equilibrado y endógeno** de los arnasgune.

Coincidiendo con la preocupación, el documento de aprobación inicial de la revisión de las directrices de ordenación territorial contempla la consecución de un Territorio Equilibrado como una de las Bases del Modelo Territorial que se desarrollan en el capítulo segundo.



5. Kultur Ondarea (7.2 Paisaia, kultura- eta natura-ondarea, eta baliabide turistikoak).

Bereziki “7.2 Paisaia, kultura- eta natura-ondarea, eta baliabide turistikoak” atalean ere jaso beharko zirela ondoko zehaztapenak.

Eusko Jaurlaritzak 2016ko apirilaren 19an onetsi zuela Euskal Ondarearen Lege aurreproiektua (7/1990 Legea eguneratzeko asmoa duena). Berritasun nagusia dela kultura immaterialaren agerpena (UNESCOren 2003ko Ondare Immaterialaren Konbentzioan azaldutako ideiei jarraikiz). Lege-aurreproiektuaren 11. artikulua aipatzen du. Lege berri honek kultur ondarearen ikuspegitik emango diola babes legala euskarari (EAEko kultur ondasun immaterialen inbentarioan sartuko omen duelako).

Lege hau onetsi bitartean, Estatu mailako 10/2015 Kultur Ondare Immaterialaren Babeserako Legea ere jadanik aplikatzeko dela. Honen 2. eta 4. artikulua aipatzen ditu.

1997. urteko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan, “Ondare Kulturaren Antolaketa” izeneko 17. kapituluaren hizkuntzaren arloa *Euskadiren idiosinkrasian funtsezko gotorleku modura* jasotzen da dagoeneko.

LAGak berrikusteko dokumentuan lurraldetik harago doan zeharkako arlo modura jasotzen da, baina lurralde-antolamenduak aintzatetsi egin behar duena.

6. Garapen jasangarria (11. Gobernantza / 11.4 Jarraipena, Ebaluazio eta adierazleak / IV Lurralde eta hirigintza jasagarritasuneko adierazleak // 11.5 LAGk aplikatzeko arauak).

Beharrezkoa dela garapen jasangarriaren inguruko gogoeta zabalago bat. Hasieran hiru zutabetan bermatzen zela esan bazen ere (ekonomia, ingurumena eta gizartea), jada UNESCOren 2003ko Ondare Immaterialaren Konbentzio garrantzitsuaz geroztik laugarren zutabe bat ere hartzen dela kontuan: kultura. Alegia, ez dela garapen iraunkorrik edo jasangarriarik jazoko, euskara babesten eta biziberritzen ez bada. “IV. Ingurumeneko Esparru programa 2020” delakoaren zio nagusia ere aipatzen du.

Horregatik proposatzen dela garapen jasangarriaren ikuspegi linguistiko-kulturala

5. Patrimonio Cultural (7.2 Paisaje, Patrimonio Cultural y Natural, y Recursos Turísticos).

Que, en concreto, deberían recogerse también en el apartado 7.2 Paisaje, Patrimonio Cultural y Natural, y Recursos Turísticos” las siguientes especificaciones.

Que el Gobierno Vasco aprobó el 19 de abril de 2016 el anteproyecto de la Ley de Patrimonio Cultural Vasco (que tiene por objeto actualizar la Ley 7/1990). Que la principal innovación consiste en la manifestación de la cultura inmaterial (según las ideas expuestas en la Convención del Patrimonio Inmaterial, de la UNESCO, del año 2003). Menciona el artículo 11 del anteproyecto de ley. Que esta nueva ley aportará protección legal al euskera desde la perspectiva del patrimonio cultural (al parecer lo incorporará en el inventario del patrimonio cultural inmaterial de la CAPV).

Que en tanto se apruebe esta Ley, es ya de aplicación la Ley estatal 10/2015 para la salvaguarda del Patrimonio Cultural Inmaterial. Hace mención a sus artículos 2 y 4.

Las Directrices de Ordenación Territorial de 1997, en su capítulo 17 “Ordenación del Patrimonio Cultural” recogen ya la cuestión lingüística como “*baluarte fundamental de la idiosincrasia vasca*”.

El documento de revisión de las DOT lo contempla como cuestión transversal que supera lo territorial, pero sobre lo cual la ordenación territorial precisa su consideración.

6. Desarrollo sostenible (11. Gobernanza / 11.4 Seguimiento, Evaluación e Indicadores / IV Indicadores de Sostenibilidad Territorial y Urbanística // Normas de Aplicación de las DOT).

Que es necesaria una reflexión más amplia respecto del desarrollo sostenible. Aunque al principio se dijo que se apoyaba en tres pilares (economía, medio ambiente y sociedad), que ya desde la importante Convención de la UNESCO del año 2003 del Patrimonio Inmaterial se toma también en consideración un cuarto pilar: la cultura. Es decir, que no se obtendrá un desarrollo duradero y sostenible si no se protege y revitaliza el euskera. Menciona también la razón principal del “IV. Programa Marco Ambiental de la CAPV 2020”.

Que en base a ello se propone incorporar la perspectiva lingüístico-cultural del desarrollo

txertatzea “Lurralde eta hirigintza jasagarritasuneko adierazleak” izenekoan artean eta baita LAGak aplikatzeko arauen Eraldaketarako Ardatzen artean ere (11.artikulua).

Ekarpenarekin bat, hasierako onespenerako dokumentuan, “Lurralde-ereduaren oinarriak” izeneko 2.1. puntuan, Lurralde Jasangarriari buruzko atalean, garapen jasangarriaren dimentsio kulturalaren aipamena gaineratzen da bigarren lerroaldean, eduki honekin:

“Garapen jasangarriaren kontzeptuari lotutako lurralde jasagarritasuna hiru aldagaien (ingurumen arlokoa, ekonomikoa eta soziala) bateratze modura ulertu behar da, laugarren dimentsio bat ahanzi gabe, dimentsio kulturala, UNESCO erakundeak 2003an gaineratua”.

7. Egoitza kuantifikazioa.

Etxebizitza-eraikuntzaren gaiari berebiziko arreta eskaini beharko litzaiokeela. Udalerrri euskaldunenek 2001-2011 artean pairatu duten euskaldun-proportzioaren beherakada latzak zerikusi handia duela 1998 eta 2008 urteen artean bizitako “adreiluaren burbuila” fenomenoarekin (Gaindegia 2016an aurkeztutako azterketa aipatzen du).

Euskararen lurgune bereziak babesteko eta zabaltzeko ezinbestekoa dela haientzat araubide espezifiko bat osatzea. 4/2016 Dekretuak (egoitza-kuantifikazioa) harrotze-faktore handiena esleitzen diela udalerrri txikienei, kontuan izan gabe arnagune geografiko gehienak udalerrri txikiak direla.

Hortaz, bizitegi-ahalmena kalkulatzeko LAGetako formulako faktoreak tokiko berezko hizkuntza babesteko eta zabaltzeko helburuaren begiradatik ondo doitu beharko liratekeela.

Hasierako onespenerako dokumentuan, “1997ko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetatik berrikuspenera: ziklo baten diagnostia eta balantzea” izeneko 1.3. puntuan, bizitegien kuantifikazioari buruzko atalean, bizitegien kuantifikaziorako zenbait irizpide izateari buruzko diagnostia eta irizpide horiek hamarkada hauetan EAEn hirigintzari dagokionez izan duten ekarpenaren inguruko aldeko balioespen bat egiten da; horren

sostenible entre los “Indicadores de Sostenibilidad Territorial y Urbanística” y también entre los Ejes de Transformación de las normas de aplicación de las DOT (artículo 11).

Coincidiendo con la aportación, el documento de aprobación inicial en su punto 2.1 “Bases del modelo territorial”, en el apartado correspondiente al Territorio Sostenible incorpora la mención a la dimensión cultural del desarrollo sostenible en el segundo párrafo que tiene el siguiente texto:

“La sostenibilidad territorial asimilada al concepto de desarrollo sostenible debe de considerarse como la integración de las tres variables (ambiental, económica y social) sin olvidar una cuarta dimensión, la dimensión cultural, incorporada por la UNESCO en el año 2003”.

7. Cuantificación residencial.

Que debería destinarse una atención adecuada al tema de la cuantificación residencial. Que el acusado descenso de la proporción de euskaldunes que han padecido los municipios más euskaldunes entre los años 2001-2011 tiene mucho que ver con el fenómeno de la “burbuja de ladrillo” que se ha vivido entre los años 1998-2008 (menciona investigación publicada por Gaindegia en el año 2016).

Que para la protección y extensión de los ámbitos territoriales especiales del euskera es imprescindible constituir una normativa específica para ellos. Que el Decreto 4/2016 (cuantificación residencial) adjudica el mayor factor de esponjamiento a los municipios menores, sin tener en cuenta que la mayoría de los arnagune geográficos son municipios pequeños.

Que por tanto, los factores de la fórmula de las DOT para el cálculo de la capacidad residencial deberían ajustarse bien desde la mirada del objetivo de la protección y extensión de la lengua propia del lugar.

El documento de aprobación inicial en su punto 1.3 “De las DOT de 1997 a la revisión: diagnóstico y balance de un ciclo” hace, en el apartado relativo a la cuantificación residencial, un diagnóstico y una valoración favorable de las aportaciones que ha tenido para el urbanismo de estas décadas en la CAPV la existencia de unos criterios de cuantificación residencial; lo que ha impedido unos desarrollos urbanísticos desmedidos.

ondorioz, neurriz gairik hiritza-
garapenak ekin dira.

Gidalerroak berrikusteko hasierako onespenerako dokumentuak, lurralde jasangarritasunari, 1997ko Gidalerroen bizitegi-ahalmenak murriztu egiten dituen modu nabarian, are, Kuantifikazioa aldatzeko 2014ko Aldaketa dokumentuarekin eta 2016ko Aurrerapenarekin alderatuz

8. Euskararen Lurralde Plan Sektoriala (I. Berrikuspenaren esparrua / IX. Lurralde Plan Sektorialak).

Euskal hiztunen kopuruaz gain, berebiziko garrantzia daukela euskaldunen dentsitateak (idea horretan oinarritzen dela arnagune geografikoen edo arnaguneen teoria). Dentsitatearen kontzeptua ez dela soilik udalerrir mailakoa, eskualde mailakoa ere bada. Eta, bereziki eskala handiago horretan, dentsitatea bezain garrantzitsua dela trinkotasuna, hots, arnaguneen jarraitutasuna, lurrun euskaldunen artean *continuum* bat osatzea.

LAG berriek euskararen lurraldea babesteko eta zabaltzeko helburua lortzeko eta berezitasun geografikoetan hobeto sakontzeko, **Euskararen Lurralde Plan Sektorial** bat ere garatu beharko litzatekeela, euskararen eta lurraldearen gaineko politikak erkidego osoaren eskalan egokiro – zehatzago- pentsatzeko eta taxutzeko.

LAG berriak nahikoak ez balira, hortaz, zehatzagoa izango litzatekeen LPS horren helburu nagusiak hurrengoak liratekeela dio:

- Euskararen arnagune geografikoak eta funtzionalak babesteko, antolatze eta kudeatzeko irizpide eta arau urbanistikoak ezartzea.
- Euskararen arnagune geografikoak eta funtzionalak elkarren artean egokiro lotzeko neurri urbanistikoak (babesaren aldetik, hedapenarenetik, etab.) ezartzea.
- Euskararen arnagune geografiko eta funtzional gehiago erdiateko estrategia urbanistikoak ezartzea.

Euskararen bilakaera-prozesuan badirela lurralde-formarekin lotutako ezaugarri espazialak.

El documento de aprobación inicial de la revisión de la Directrices en un ejercicio de sostenibilidad territorial reduce de forma importante las capacidades residenciales de las Directrices de 1997, incluso con respecto del documento de Modificación de la cuantificación del año 2014 y del Avance de 2016.

8. Plan Territorial Sectorial del Euskera (I. Marco de la Revisión / IX. Los Planes Territoriales Sectoriales).

Que, además del número de hablantes del euskera, tiene una importancia enorme la densidad de euskaldunes (que se basa en esta idea la teoría de los arnagunes geográficos o arnagunes). Que el concepto de densidad no es sólo de ámbito municipal, que es también de ámbito comarcal. Y, especialmente en esa mayor escala, la fortaleza es tan importante como la densidad, es decir la continuidad de los arnagunes, la formación de un continuum entre los ámbitos territoriales euskaldunes.

Que para que las nuevas DOT logren el objetivo de proteger y extender el territorio del euskera y para profundizar mejor en las especificidades geográficas, debería desarrollarse también un **Plan Territorial Sectorial del Euskera**, para pensar y diseñar más adecuadamente –con mayor precisión- a escala de toda la comunidad las políticas de euskera y de territorio

Que caso de no ser suficientes las nuevas, DOT, los objetivos de ese PTS que sería más concreto serían los siguientes:

- Establecer los criterios y normas urbanísticas para la protección, ordenación y gestión de los arnagunes geográficos y funcionales del euskera.
- Establecer las medidas urbanísticas (desde la protección, la extensión...) para enlazar adecuadamente entre ellos los arnagunes geográficos y funcionales del euskera.
- Establecer estrategias urbanísticas para lograr más arnagunes geográficos y funcionales del euskera.

Que en el proceso de transformación del euskera ya hay características espaciales ligadas a la forma del territorio.



Lurralde Plan Sektoriala bat idazteari dagokionez, Zeharkako Gaien berezko kontzeptuari erreparatu behar zaio.

Hasierako onespenerako dokumentuan zeharkako hurrengo alderdiak barneratzen dira: Irigarritasun Unibertsala, Genero-ikuspegia, Klima-aldaketa, Osasuna, Euskara eta Lurralde arteko harremana.

Gai horiei buruz, dokumentuan adierazten denez *“Berez lurraldeari estu lotuta ez badaude ere, lurraldean nolabaiteko eragina duten gai batzuez ari gara”*.

Hots, lurraldearen eremua gainditzen duten alderdiak dira eta ezin dira eremu horretan kokatu. Ezin da LPS plan batez hitz egin osasunean, edo klima-aldaketan, edo irigarritasun unibertsalean, edo genero-ikuspegian; gaiak lurraldearen eremua gainditzen du. Halaber, ez da ikusten hizkuntza bat, euskara, LPS plan batean koka daitekeenik.

9. Zuzenketak.

“10.4 Euskara” atalean bi alditan aipatzen dela “euskararen koofizialtasuna” eta aipamen hau zuzentzea eskatzen da (zehatza ez dela eta). Euskara bera bere kabuz dela hizkuntza ofiziala EAEn, ez duela beste hizkuntza baten laguntzarik behar ofiziala izateko, balio juridiko osokoa dela.

10.4 Euskara” atalean ez datorrela bat euskarazko eta gaztelaniazko bertsioek proposatzen duten lehen gidalerroa.

Gaizki jaso dela Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 7. artikuluko 7. zenbakiaren aipamena; “Udaletako egoera ...” beharko luke izan (hutsen zuzenketa; EHAA 123. Zk.)

Ekarpenarekin bat, hasierako onespenerako dokumentuan zalantza eragiten zuten zenbait hitz ezabatu egin dira.

Halaber, lehendabiziko gidalerroaren edukia berrikusi egin da, euskarazko bertsioa zuzenduz, eta ohartarazitako errakuntza konpondu egiten da.

Konklusioak.

1.- UEMA mankomunitateak egindako ekarpenak irakurri ostean, batez ere, dokumentua aztertu eta bere ekarpenak

En lo relativo a la redacción de un Plan Territorial Sectorial cabe remitirse al concepto propio de las Cuestiones Transversales.

El documento de aprobación inicial contiene como cuestiones transversales las siguientes: Accesibilidad Universal, Perspectiva de género, Cambio climático, Salud, Euskera e Interrelación territorial.

Sobre tales temas se dice en el documento que son materias que *“sin tener una naturaleza de carácter territorial propiamente dicha, también tienen una incidencia en el territorio”*.

Es decir, son cuestiones que sobrepasan el campo territorial no pudiéndose enmarcar en tal campo. No es posible hablar de un PTS de salud, o de cambio climático, o de accesibilidad universal, o de perspectiva de género; la materia sobrepasa el campo de lo territorial. Tampoco se observa que pueda enmarcarse una lengua, el euskera, en un PTS.

9. Correcciones.

Que en el apartado “10.4 Euskera” se menciona en dos ocasiones la “cooficialidad del euskera”, y se solicita se subsane esta mención (dado que no es precisa). El euskera es por sí mismo una lengua oficial en la CAPV, no necesita de la ayuda de otra lengua para ser oficial, que es de total valor jurídico.

Que la primera directriz propuesta en el apartado “10.4 Euskera” no coincide en la versión en euskera y castellano.

Que se ha recogido mal la mención al apartado 7 del artículo 7 de la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi; debería ser “Udaletako egoera...” (corrección de errores; BOPV nº123).

Coincidiendo con la aportación, el documento de aprobación inicial ha suprimido los términos que generaban duda.

Asimismo, ha sido revisado el contenido de la directriz primera, corrigiendo la versión de euskera, y ha sido subsanada la errata advertida.

Conclusiones.

1.- De la lectura de las aportaciones efectuadas por UEMA, cabe, ante todo, agradecer el esfuerzo realizado en analizar el

helarazteko egindako ahalegina eskertu behar da.

2.- Idatziaren edukira ekarpenei emandako erantzunen kontsiderazio orokorra gaineratzea.

documento y en remitirnos sus aportaciones.

2.- Remitir al cuerpo del escrito la consideración concreta de las respuestas a las aportaciones.

(Dirección de Planificación Territorial, Urbanismo y Regeneración Urbana, febrero de 2018)